


FAKULTATEKO KONTSUMOA

Hiruhilekoko datuak

PAPERA (Atezaintza, Idazkaritza eta Dekanotza)

UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA
17.500 unitate	4.500 unitate	45.500 unitate

Hauxe izan da kontsumoaren azken sei hilekoko bilakaera (orri kopuruari dagokionez):



Urteko hirugarren hiruhilekoko orri kontsumoa aurreko ikasturteko kontsumoaren antzekoa izan da. Uztailean 17.500 unitate kontsumitu dira, iazko uztailean baino 5.000 gutxiago. Abuztuko kontsumoa ia-ia berbera izan da: 4.500 orri. Hain zuzen ere, Fakultateak aurtengo abuztuan kontsumitu du paper gutxien 2013ko urritik hona (urte hartan hasi zen erregistratzen hileroko kontsumoa). Irailean, berriz, berriro hasten dira eskolak, eta orduantxe kontsumitzen da paper gehien urte osotik. 2016an lehen aldiz, 40.000 orriko muga gainditu da; zehazki, 45.500 orri kontsumitu dira guztira.

Laburbilduz, hirugarren hiruhileko honetan 67.500 orri kontsumitu dira orotara, iazko hiruhileko berean baino 9.500 orri gutxiago.

KARTUTXOAK/TONERRA (Atezaintza, Idazkaritza eta Dekanotza)

	2016ko HIRUGARREN HIRUHILEKOA
Inprimagailuetako kartutxoak	5


Birfabrikatutako 5 kartutxo unitate aldatu dira banako inprimagailuetarako.

ONTZIAK (Fakultatea)

	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA
ONTZIAK*	24 kg	12 kg	71 kg

*Kg = kilogrameak (litro 1 paper = 0,32 kg eta litro 1 plastiko 0,05 kg)

Beheko taulan ikus daiteke nolako bilakaera izan duen (kilogramotan) Fakultateko edukiontzi horietako hondakinen (ontziak) bilketak:




Abuztuan, Fakultateko jarduna urritzen denez, paperarekin gertatzen den bezala, ontzi gutxiago biltzen da urteko beste hilabeteetan baino. Irailean, 71 kilo ontzi bildu dira.

PAPER BIRZIKLATUA (Fakultatea)

Beotibar Recycling SLk, Bizkaiko Campuseko edukiontzi urdinetara botatzen den papera biltzeaz arduratzen den enpresak, gure Fakultatean bilduriko kilogramoen zifrak eman dizkigu. Hona hemen azken hiruhilekoan Fakultateko edukiontzi urdinetara botatako kopurua:

UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA
1.250 kg	760 kg	920 kg

Grafiko honek Fakultateko edukiontzi urdinetan bildutako kopuruak azken sei hilekoan izan duen bilakaera erakusten du:



Beotibar SLk emandako datuen arabera, uztailean bildu da paper gehien Fakultateko edukiontzi urdinetatik. Halaber, iraila izan da paper gehien bildu den hilabeteetan bigarrena: 920 kilo guztira.

2016ko Iraunkortasun Astea

Ohi bezala, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak Europako Mugikortasun Astea antolatu zuen irailaren 16tik 22ra, "Mugikortasun adimentsua. Ekonomia Gogorra" lelopean.


Hiru campusetan izan zen mugikortasun astea, eta askotariko jarduerak egin ziren: filmak, bizikletak konpontzeko standak, antzerkia, bizikleta ibilaldiak.

Aurtengo esloganarekin, "Mugikortasun Adimentsua. Ekonomia Gogorra", mugikortasun adimentsuak ekonomian izan dezakeen eragin positiboa azpimarratu nahi izan da. 2016ko Europako Mugikortasun Asteak nabarmendu nahi du mugikortasun adimentsuak eta iraunkorrak onura ekonomiko handiak dakartzala; esaterako, dirua aurrezten du, eta gizarteko bizi kalitatea hobetu. Mugikortasun adimentsu eta iraunkorraren onurek hala pertsonei nola enpresei eta gizarteari egiten diete mesede. Horrez gain, Mugikortasun iraunkor eta adimentsuak ingurumenean zein osasunean sortzen dituen gainerako onura guztiek ere aurrezki izugarriak eragiten dituzte ibilgailu pribatu gehiegi erabiltzeak dakartzan ondorioak murrizteko baliabideetan.



Karbono zuntzaren %100 birziklatzea

UPV/EHUko **Campus**a aldizkari digitalak ingurumenarekin lotutako artikulu interesgarriak argitaratzen ditu. Euskal Herriko Unibertsitateko Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurugiroa Saileko irakasle eta ikertzaile batzuek karbono zuntzeko materialen hondakinen %100 birziklatzeko metodo bat patentatu dute.



Karbono zuntza

Karbono hutsezko zuntza oso-oso garestia da merkatuan. Horregatik, hasiak dira zuntzak berreskuratzeko planta batzuk eraikitzen.

Karbono zuntza birziklatzeko egungo fabrika industrialek, tratamenduaren prozesuan, hondakin asko sortzen dituzte (baporeak bereziki), eta ondoren erraustu, besterik gabe. Alegia, fabrika horietan, erretxinaren deskonposizioak sortutako lurrinak errausketaren bitartez ezabatzen dira; haien balioa, beraz, ez da aprobetxatzen, eta horrek isuri kutsatzaileen arazoa ekartzen du. UPV/EHUko ikertaldeak argitaraturiko patenteak metodo bat zehaztu du lurrin horiek tratatu eta hidrogeno proportzio handiko gas baliotsu bat lortzeko, eta, ondoren, konposatu hori bereizi eta saldu ahal izateko. "Hidrogenoa etorkizuneko erregaia izango da, ez duelako kutsatzen: hidrogenoa erretzean, ura baino ez da sortzen. Gainera, sintesi kimikorako erabil daiteke hainbat eta hainbat aplikaziotan", esan du De Marcok, UPV/EHUko taldeko kideak. Horrenbestez, metodo horrek

konponbidea ematen dio karbono zuntzak berreskuratzeko prozesuetan sortzen diren produktu likido eta gaseosoen kalitate eskasari eta aprobetxatzeko zailtasunari.

GKZ Berdea taldearen partetik.

Zorionak Euskal Herriko Unibertsitateko Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurugiroa Sailari!

Datuen iturria:

✎ <http://www.magrama.gob.es/es/calidad-y-evaluacion-ambiental/temas/medio-ambiente-urbano/movilidad/sem-2016.aspx>

✎ http://www.ehu.eus/es/web/guest/preview-campus/-/asset_publisher/1o7v/content/n_20160930_patente

Mesedez, ez inprimatu aldizkari hau, pantaila batean ikusteko berariaz diseinatu dugu eta. Aurrez ditzagun papera eta tonerra/tinta!

Hemen azaldutako ideien bat aurrera atera nahi baduzu baina ez badakizu nola, edo iradokizun, ideia edo proposamenen bat baduzu, jar zaitez harremanetan gurekin, helbide honetara idatzita:

gz.ekoscan@ehu.eus